

## ZER DALA TA ZER DALA?

1

Zer da, gauza bat gehiago kendu  
ta haundiagoa dana?  
-Gaztatu-ahala, poltzan egiten  
jatzun hutsuna, laztana.

2

Samea badau ta bururik ez,  
zulorik ez eperdian;  
- Begiratu ta botella dozu,  
ez ibili pikardian.

3

Sasian sartu ta urratu ez  
ta uretan ezin busti.  
- Zuri ezagun jatzuz izenak:  
ilargi eta eguzki.

4

Bada fruta bat kanpokaldean  
daukana bere hazia.  
- Ez da besterik, baina hauxe da  
malukiaren grazia,.

5

Upela zegaz bete behar da  
gitxiena pixatzeko?  
- Zuloz beteizu ta zeuk ikusi,  
neu ez banaz fiatzeko.

6

Aitamak bina, alabak hiru,  
semeak ez daukana da.  
- Astoak ere ondo daki ta,  
ez al dakizu zer dan A?

7

Loretan zuri, txikitan berde,  
neska-mutikotan gorri.  
Atso-agura sasoian baltza?  
- Masusta deitzen jako horri.

8

Hemen badago ta han ez dago,  
ez dago hor, ezta han be.  
- Nik esan barik, igerri baietz,  
badakizu ta esan E.

Hilero dago jaiobarria  
ta jan barik bete-bete.  
- Badakizu ta ezin igerri?  
Ilargia dok, arlote.

10

Jaungoikoak bat bakarra dauka  
eta bi bai ijituak.  
- Hi lango batek, I dala esan  
eta ha zer merituak!

11

Beso luzeak eta eskurik ez,  
saman burua falta.  
- Zeu ez bazara, zer dan igerri;  
alkondarea ez al da?

12

Geure kolkoan bi daukaguz ta  
gorputzean bat bakarra.  
- Aldrebeskeri hutsa dirudi,  
ez al da O, lagun zaharra?

13

Atzean zulo ederra dauka  
ta aurreko puntan punta.  
- Zu ez inori begira jarri,  
hartu jostorratz arrunta.

14

Oilarrak kanta, kukuak lata,  
idi sama luzeak muuu.  
- Ez badakizu, adarra joaz,  
mosoluak dinotsu UUU.

15

Langile bat da luze bixkorra,  
bestea alper, kojua.  
Martxan hamabi geltoki daukaz.  
- Hau ez al da erlojua?

16

Mendian jaio, mendian hazi,  
etxean sartuta, dantza.  
- Lagun eiozu, zain daukazu ta  
ate-ostean erratza.

17

Nok ez dau entzun edo sentidu  
mendi arteko trumoia?  
- Ez da ikusten, bai da sumatzen,  
zer dan esaten ez noia.